

PRENTSA OHARRA

Soluzio adimendunak datuetan oinarritutako aplikazioen garapena optimizatzeke

- DITAS proiektu europarrak, zeina IK4-IDEKO euskal zentro teknologikoaren partaidetzarekin garatzen ari baita, datuen erabilera intentsiboak hainbat alorretan, hala nola osasunaren eta industriaren alorretan, dituen aplikazioen garapena hobetzea bilatzen du.
- Ekimena urte hasieran abiatu zen, nazioarteko zortzi bazkide ditu, eta 4,4 milioi euroko aurrekontua.
- Proiektuak lan ingurune berria garatuko du Big Data aplikazioen diseinurako, eta bere emaitzak software aske gisa banatuko dira.

(Elgoibar, 2017ko maiatzak 16).- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eguneroko eremuetan erabiltzeak, hala nola merkataritzan, garraioan, industriako fabrikazioan, ekoizpen lerro adimendunetan, e-Osasunean, laguntza sanitario informatizatuan edo auto autonomoen sektorean, eskatzen du datu kopuru handiak azkar, seguru eta eraginkortasunez prozesatzeko eta kudeatzeko gai diren soluzio berriak garatzea.

Testuinguru horretan garatzen da **DITAS** proiektu europarra (Data-intensive applications improvement by moving data and computation in mixed cloud/fog environments), **IK4-IDEKO** Fabrikazio Aurreratuan espezializatuta dagoen euskal zentro teknologikoaren partaidetzarekin garatzen ari den ekimena, alegia.

Proiektu hau aurten abiarazi da, urte hasieran, eta bere helburua da lan ingurune edo framework berria sortzea hainbat sektoretan, hala nola industriari eta arreta sanitarioan, datuen erabilera intentsiboan oinarritzen diren aplikazio informatikoak errazago garatzeko.

DITAS proiektua ikuspegi berritzaile batetik abiatzen da, hodei konputazioaren abantailak eta *fog computing*-en edo laino konputazioaren paradigma konbinatzen dituen ikuspegi batetik, zehazki, eta bere misioa da lan esparru bat garatzea datuen kudeaketarako aplikazioak errazago garatzen eta gauzatzen laguntzeko.

Datuen erabilera intentsiboko aplikazioen garapenean espezializatuta dauden enpresak izango dira DITAS soluzioaren onuradun nagusiak, software aske gisa banatuko baita. Proiektuaren emaitzak soilik aplikazioaren alderdi logikoetan zentratzea ahalbidetuko die garatzaileei. Hau da, datuak nola, noiz eta non gorde aztertu ahal izango dute, gai horietan zentratuta, eta datu horiek aurkitzea, prozesatzea eta entregatzea, berriz, DITASen gauzatze ingurunearen esku utziko dira.

Bi eszenatoki teknologia berria baliozkotzeko

Proiektuak aurreikusten du emaitzak 4.0 Industriaren sektorean eta osasun informatizatuaren alorrean (e-Osasuna) baliozkotzea; izan ere, bi alor horiek datuetan oinarritutako aplikazio adimendunen garapenean premia dute, nahiz eta errendimenduari, kalitateari, segurtasunari, pribatutasunari, formatuari, jatorriari eta biltegitzeari dagokienez betekizun desberdinak izan.

IK4-IDEKOK 4.0 Industriaren eszenatokia gidatuko du, erakusteko nola DITAS frameworka erabiliz *cloud* hornitzaileetan zein ekipoen instalazioetan bertan txertatuta dauden sentsoreek, eragingailuek eta makinek sortarazitako datuetan oinarritutako aplikazioak erraz garatu, hedatu eta mantendu daitezkeen.

Bigarren eremuan, DITASen asmoa da erakustea zein erraza den lan esparru honekin osasun zentroetan bildutako datuak prozesatu eta mugitzen eta *cloud* inguruneetara bideratzen lagunduko duten aplikazioak garatzea, horrelako informazioak eskatzen duen segurtasuna eta pribatutasuna bermatuta.

DITASen asmatutako sistema datu birtualen biltegien eredu batean oinarrituko da. Virtual Data Containers izena du biltegi horrek, eta aplikazioak ondo funtzionatzeko eta datuen ustiatetan zentratu ahal izateko beharrezkoak izango dituzten datuak definitzen lagunduko die garatzaileei, frameworkaren esku utzita datu horiek aurkitzea, prozesatzea eta entregatzea, aplikazioak datu horiek erabili ahal ditzan.

Nazioarteko partzuergo bat

Proiektua 2019aren amaieran bukatuko da eta eraldaketa digitaleko [Atos](#) enpresa espainarrak gidatzen du. Partzuergoan parte hartzen ari dira, baita ere, [Milango Politeknikoa](#) hezkuntza erakundea, [Berlingo Unibertsitate Teknikoa](#), [CloudSigma](#), zerbitzu gisako azpiegituren *cloud* hornitzaile suitzarra, Greziako Komunikazioko eta Sistema Konputerizatueta Institutua (ICCS), [Israelgo IBM](#) eta Italiako [San Raffaele](#) unibertsitate ospitalea.

DITASEk 4,4 milioi euroko aurrekontua du, Europako Batzordeak ICT (Information and Communication Technologies) programaren bitartez finantzatuta, Horizonte 2020 ikerketarako eta berrikuntzarako laguntza tresnaren barruan.
